

# ***Ingurumen Buletina***

- 1. Maiatzak 12: Break Free jardunaldia ELAn*
- 2. Gipuzkoako Aldundiaren etorkizunerako hondakin kudeaketarako azpiegituren proposamena*
- 3. ELAk "Debagoieneko Ituna" sinatu du*
- 4. Ingurumen gatazken munduko atlasa*

## **1. Maiatzak 12: Break Free jardunaldia ELAn**

ELAk bat egin du erregai fosilak lurrazpian uzteko Break Free kanpainarekin. Aurtengo ingurumenerako formakuntza jardunaldia kanpaina honen barruan kokatu du. Giza katea eta kontzentrazioa egin ditugu Bilboko Eusko Jaurlaritzaren egoitzaren aurrean, aurrera daramaten duen energia politika salatzeke. Energia izan da saio honen lan ildo eta hainbat hizlari izan ditugu energiaren inguruko atal ezberdinak aurkezten:

Asbjörg Wahl: “Klima aldaketak badu irtenbidea, borondate politikoa falta da”

Asbjörg Wahl Garraiolarien Nazioarteko Federazioko (ITF) lehendakariordea eta bertako klima aldaketaren inguruko lan taldeko kidea izan da. TUED Energia Demokraziarako Sindikatuen Sareko kidea ere bada.

Asbjörg Wahlek bere aurkezpenean parisko Akordioaren inguruan hitzegin zigun, nahikoa ez zela esanez eta klima aldaketa geldiarazteko falta dena borondate politikoa dela salatuz. Bere hitzekin geratzen gara “Klima aldaketarentzat irtenbidea badugu, geldiarazteko teknologia badugu, borondate politikoa behar da ordea”.

Ikusi [hemen](#) bere interbentzioa eta

aurkezpena.

Pablo Cotarelo: “Energiaren benetako kostea”

Pablo Cotarelo sektore energetikoaren analista da. Observatorio de la Deuda en la Globalización elkarteko kidea izan da, baita Ecologistas en Accion elkarteko Energia eta Klima Aldaketa ataletako koordinatzailea ere.

Pablo Cotarelok “Energiaren benetako kostea” txostenaren ondorioak aurkeztu zituen. Beste ondorio batzuen artean, 1998 eta 2013 artean modu ilegítimo batean industria elektrikoari ordaindutako kopurua azaldu zigun: 80.000 milioi euro baino gehiago. Gainera sistemak osasunean eta ingurumenean sortzen dituen eta kontutan hartzen ez diren kosteak azaldu zituen.

Ikusi [hemen](#) bere interbentzioa eta aurkezpena.

I-ENER, energia fosilei alternatiba

I-ENER energia berriztagarrien ekoizpena bultzatzen duen sozietate bat da. Energia berriztagarriak garatuz, Euskal Herrian energia eredu aldaketa bilatzen du.

Bixente Uhaldek, I-ENER sozietateko kideak, Iparralden energia berriztagarria eskala lokalean sortzen duen sozietate honen proiektua azaldu zuen. 2014 urtean pertsona talde bat, transizio energetikoa beharrezkoa zela pentsatuz, herritarrak biltzen hasi zen

energiaren sorkuntza berreskura eta proiektu ezberdinak aurrera eramateko asmoz. Euskal Herrian kontsumitua den energiaren %92a kanpotik heldua da, baina bertutezko trantsizioa garbia, errentagarria eta berriztagarria izango da. Egoera aldatzen hasteko sortu da I-ENER.

Ikusi [hemen](#) bere interbentzioa eta aurkezpena.

ELA: "Hego Euskal Herriko energia politika energia fosiletan oinarrituta dago"

Antolatutako formakuntza saioan, EAE eta Nafarroako energia politikak beraien lekua izan dute. Izan ere salatzekoa baita bizi dugun egoeraren aurrean, (klima aldaketaren mehatxua, pobrezia energetikoa, oligopolioaren boterea eta energia berriztagarrien bazterketa) bi administrazio hauek duten jarrera. Energia fosiletan oinarrituriko eredu energetikoak bultzatzen dituzte, biek, berriztagarriak propaganda hutserako erabiliz.

Ikusi [hemen](#) aurkezpena eta demokraziaren energetikoaren inguruko bideoa.

## 2. Gipuzkoako Aldundiaren etorkizunerako hondakin kudeaketarako azpiegituren proposamena

Foru Aldundiak etorkizunerako

proposatutakoa aztertu aurretik, garrantzitsua da kudeaketaren gaur egungo egoera ezagutzea.

2015ean Gipuzkoako hondakinen %49 berezitatea jaso zen. Portzentaje honek 2012-2015 epean, 16 puntu egin du gora. Bestalde, hondakinen sorrerak ere behera egin du, 2010ean baino %12 hondakin gutxiago sortu ziren. Jaitsiera hau adierazgarria izan da azken urtean, 2014tik beherakada %7koa izan baita, 22.000 tona gutxiago.

Oraindik Europako 2020rako helburuetatik urrun gaude. Hondakin guztien %42 birziklatzen da, 2020rako europar helburutik urrun. Egoera kezkarria hondakin organikoena da, arazo gehien sortzen dituen hondakin motarena. %29 soilik birziklatzen da, 2020rako helburua %50 birziklatzea denean.

Birziklapenaren egoera hau izanik, txanponaren beste aldean errefusa kantitateak ditugu. Gipuzkoan jasotako hondakinen %49 errefusa bezala jaso zen (pertsonako 206kg). Kopuru honen barne dago oraindik ere birziklatu daiteken zati handi bat eta oraindik birziklatzen ez dena. Portzentaje hau hobetzeko marjina handia da oraindik, eta berau da etorkizunerako erronka handienetakoa.

Mankomunitate bakoitzaren egoera ez da berdina, ezta gutxiago ere. Bakoitzak jarraitu duen politikaren arabera emaitzak dituzte. Debagoiena da gehien birziklatu duena, %77. Egoera txarrena Txingudi eta Debabarrenak dute %39ko gaikako bilketarekin.

Emaitza hauek hobera egingo lukete 2016an hondakinen kudeaketa politikak norabide aldaketarik eman ez balu, baina administrazioaren maila ezberdinetan gobernu aldaketak egon dira eta kudeaketan eragin zuzena izan dute. Foru Aldundia eta hainbat udaletxe Bilduren eskuetatik EAJren eskuetara pasa dira, eta horrenbestez baita hondakinak kudeatzen dituzten hainbat mankomunitate eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa (GHK) ere. Ondorioz, politika aldaketa hauek hurrengo hilabeteetan emaitzek okerrera egingo duela aurreikusi daiteke.

Ingurumen diputatuak kontzientziazio maila handiari egotzi dizkio datu on hauek, ez hondakinak jatorrian bereizteko martxan dauden bilketa sistema berriei. Bilketa sistema hauek aldatuta ordea, datuak okerrera egingo dute eta hor ikusiko da benetan sistema berriek azken urteetan izan duten eraginkortasuna.

GHK eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren hondakinen kudeaketarako politikari dagokionez, aldaketa handiak eman dira. Alde batetik, hainbat udalerrri eta mankomunitatek atez atekoa eta sistema mistoak albo batera utzi eta edukiontzien sistemara bueltatzea erabaki dute. Hondakinak jatorrian berezituta jasotzea ez da lehenesten 4 edukiontzi edo 5 edukiontziko borondatezko sistemekin, eta ondorioz errefusa kantitate handiak jasotzen dira. Hondakinak bereizteko derrigortasuna galtzea atzera pausu handia da, emaitza onak bermatzeko modu bakarra baita. Errefusa honen zati handi bat birziklatu daiteke, baina nahasita biltzeak birziklapen hau eragozten du.

Arestian aipatu bezala, beste erronka hondakin organikoaren birziklapena da. Frakzio hau modu eraginkorrean birziklatzeko konpostajearen bidea da egokiena baina horretarako jatorrian berezita jaso eta konpostaje plantetan tratatu behar da.

Hondakinen tratamenduari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiak Zubietan hondakinen kudeaketarako zentro bat egitea erabaki du, Bilduko aurreko gobernuak proiektatu zuenaren guztiz ezberdina. Erraustegiaz gain, zein aurreko boletinetan egoera zein den azaldu dugun,

eraikiko diren azpiegiturak honakoak dira:

- Lehen fasean: tratamendu mekaniko biologikorako planta (TMB) eta urtean 200.000 tona hondakin erretzeko erraustegia. (200 milioi euro)
- Bigarren fasean: biometanizazio planta eta eskoriztat balorizazio zentroa. (35 milioi euro)

Planteatzen diren tratamenduak hondakinak nahasirik jasota kudeatzeko planteatzen dira: - TMB planta nahasita jasotako hondakinak berezitu eta birziklatzera eramateko da.

- Biometanizazioa planta hondakin organikoak beste hondakin batzuekin nahasita jasota tratatzeko da, konpostajea baino askoz eraginkortasun baxuagoarekin.
- Eskoriei zuzenduriko zentroa erraustegitik ateratzen diren hondakinak tratatu (zepak, errauts toxikoak...) eta zabortegei berezietara eramateko da.

Sistema osoa hondakinak nahasita jasoko direla ontzat emanez pentsatu da. Beraz, hondakinen kudeaketa eredu honen helburua ez da hondakinak jatorrian berezita jaso eta ahalik eta gehien birziklatzea.

Transparentzia eta informazio falta larriak ikusirik, hurrengo urteetarako

Hondakinen Kudeaketa Plangintza Orokarra non azpiegitura berriak justifikatu eta azaldu behar diren publiko ez egitea esaterako, ELAK Gipuzkoako Foru Aldundiari exijitzen dio 2016tik aurrera indarrean egon behar duen Hondakinen Plangintza Integrala publiko egin dezala, gipuzkoarron eskubidea baita egoeraren berri izatea, eta bide batez, erabaki hauetan parte hartzea.

Klikatu [hemen](#) maiatzaren 25ean prentsaurrekoan aurkeztutako txosten osoa ikusteko.

### **3. ELAK “Debagoieneko Ituna” sinatu du**

“Debagoiena Eredu, Zabortegeirik ez!” plataformak deituta, mugimendu, alderdi eta sindikatuen ordezkaritza zabal batek, ELAK barne, sinatu dugu “Debagoieneko Ituna”. Debagoieneko eredia Gipuzkoara eta Euskal Herri osora zabaltzea eskatzen dugu itun honekin:

#### Debagoieneko ituna

Jakina den moduan, hondakinen kudeaketak bi fase ditu: bata, bilketa eta bestea, bildutako hondakinei tratamendua ematea. Lehenak hurrengo baldintzatu egiten du. Hondakinak gaika bilduz gero, birziklagarriak diren materialak berreskuratu egiten dira. Hondakinak nahasirik bilduz gero

ordea, ezin direnez berreskuratu, hondakinak zabor bihurtzen dira.

Debagoieneko eskualdeak erakutsi du %80 gaika bildu daitekeela oso epe laburrean. Arduradun politikoez gatazka egoera gaituta, herritarrei mezu egoki eta bateratua bidali diete: etxeetan hondakinak sailkatzea nahitaezkoa da eta gainera erraz egiten da. Herritarrak berehala jabetu dira zentzuzkoa dela gaika biltzea eta gaur egun Gipuzkoa osoan eta baita Europa mailan ere jarraitu beharreko eredu gara.

Hau guztia kontuan izanda, itun hau sinatzen dugun eragile sozial eta politikoez honako hau adierazi gura dugu:

- 1.- Osasuna eta ingurumena dira lehenesten ditugun irizpideak.
- 2.- Elkartasun eta erantzukizun frogarik handiena bakoitzak etxean sailkatzea da, eta ekintza xume horrek bestetik, planetarekiko, ardura eta begirunea adierazten du bete-betean.
- 3.- Debagoienean frogatu dugu %80 gaika bildu daitekeela eta epe oso laburrean lortu

daitezkeela emaitza horiek.

4.- Debagoienean egin badugu, beste edozein lekutan egin daiteke. Beraz, Gipuzkoara eta Euskal Herri osora zabaldu nahi dugu gure eredu, Europari begira, erreferente bilakatzeko.

5.- Emaitzak etengabe hobetzeko konpromisoa hartzen dugu.

#### **4. Ingurumen gatazken munduko atlasa**

Ingurumen Justiziaren Atlasaren helburua mundu osoan ingurumenaren inguruan garatu diren gizarte gatazkek erakustea da. Orain arte 1.729 gatazka bildu dira, mundu osoan zehar banatuta daudenak eta hurrengo bost urteetan 3.000 kasu biltzea espero da. Mineral, gas edo petrolio esplotazioak daude, baina baita garraioarekin, lurralde eskubidearekin, soia landaketekin, hondakinen kudeaketarekin edo glifosato fumigazioekin loturiko gatazkek ere.

Klikatu [hemen](#) atlasa ikusteko.